



Morlans Pasealekua 14 Behea | 20009 Donostia | 943 05 10 95 | gertuanfundazioa@gertuanfundazioa.eus



Zer da **Gertuan Fundazioa**?

Garapen desgaitasuna edo desgaitasun intelektuala dugun pertsonoi, bizitzan laguntzen digun erakundea da, hori egin dezakeen familiarik ez dugunean.

Tutoretza izaerako laguntzak ematen dizkigu, erabaki egokiak hartzen lagunduz.

Irabazi asmorik gabeko erakundea da.

Pertsona autonomoagoak izan nahi dugu.





Nori **lagun** diezaioke?

Gertuan Fundazioak,
hurrengo baldintza hauek guztiak betetzen badituzu
lagun diezazuke:

- Adimen edo garapen desgaitasuna baldin baduzu.
- Lagun diezazukeen seniderik ez baduzu.
- 16 urte baino gehiago baldin badituzu.
- Gipuzkoan bizi bazara.
- Tutoretza izaerako laguntzak behar badituzu.
- Fundazioak laguntzea nahi baduzu.

Zure bizitzako erabaki garrantzitsuak
hartzen laguntzen dizugu.

**«Laguntzen
dugun pertsona da
garrantzitsuena»**



Gure ikuspegia

Erakunde erreferentea izan nahi dugu.

Horregatik, hurrengo hauekin konprometitzen gara:

- Desgaitasun intelektuala edo garapen desgaitasuna duten eta gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza behar duten pertsonekin.
- Gizartearekin.

Desgaitasuna duten pertsona guztiek, honako hauek egin ahal izateko, egingo du lan Fundazioak:

- Gizartean erabat integratzeko.
- Eskubide guztiez gozatzeko.
- Haien bizi-kalitatea hobetzeko.



«Gertukoa eta konprometitua den norbait daukat»



Gure misioa

Desgaitasun intelektuala
edo garapen desgaitasuna
eta babesgabetasun egoeran dauden pertsonak
beren bizi-proiektua garatzeko
beharrezko laguntzak bermatzea.

Gure misioa betetzeko,
pertsona guztiekin,
elkarlanean aritzen gara,
konpromisoz, errespetuz, gertutasunez eta
konfiantzaz.



Gure baloreak

Gertuan Fundazioaren baloreek gure lanean orientatzen gaituzte.

Balore horiek, modu egoki eta arduratsuan jokatzeko laguntzen digute.





Gure historia

70eko hamarkadan, desgaitasun intelektual eta garapen desgaitasuna duten pertsonen gurasoak, euren seme-alaben etorkizunaz kezkatu ziren.

Familia hauek ez zeudenean, nork lagunduko zien jakin nahi zuten.

Atzegiko familien elkartean egin zuten hausnarketa hau.

1969, Hasiera

Familiak kezkatuta daude adimen urritasuna duten beren seme-alaben etorkizunarekin. Nork lagunduko die beraiek falta direnean?





Gure historia

1969

Atzegi elkarteak Donostian tutoretzari buruzko nazioarteko bilera bat antolatzen du.

1977

Atzegik **etorkizuna prestatzeko** programa abian jartzen du.

1994

Aspace eta Gautena familia elkarteeko pertsona garrantzitsuak patronatu barnean sartzen dira.

1983

Atzegik Fundazio Tutelarra sortu zuen, Estatuko lehena izan zen.





2000

Gipuzkoako
Foru Aldundia,
Atzegi Babes Fundazioari
laguntza ekonomikoa
ematen hasten da.

2021

Egoitza berria
Morlans pasealekuan
eta izen berria:
Gertuan Fundazioa.
8/2521 legea
onartzen da.

2006

Babesgabetasun-egoeran
dauden eta ezgaituak
diren helduen tutoretzari
buruzko Gipuzkoako
Manifestua
onartzen da.

2014

Eusko Jaurlaritzak,
Gizarte-intereseko
erakunde izendatzen
du Babes Fundazioa.

2008

Euskadiko
gizarte zerbitzuen
kartera
dekretuaren
onarpena.





Nola laguntzen die **desgaitasuna duten pertsonei?**

Gertuan Fundazioak laguntza behar duzun bizitzako arlo horietan laguntzen dizu:

- Pertsona autonomoagoa izaten laguntzen dizu.
- Erabakiak hartzen laguntzen dizu.
- Zure bizitza zuk nahi duzun bezalakoa izan dadin laguntzen dizu.
- Zure ongizate eta osasunari dagozkion erabakiak hartzen laguntzen dizu.
- Etxebizitza egokia bilatzen laguntzen dizu.
- Lana bilatzen laguntzen dizu.
- Gizarteko ekintza eta zerbitzuetan parte hartzen laguntzen dizu.
- Zure eskubideak errespetatu daitezkeen arduratzen da.
- Zure betebeharrak betetzen laguntzen dizu.
- Zure ondasunak administratzen laguntzen dizu.

**«Konfiantza dut
laguntzen nauten
pertsonean»**

Nola ezartzen da laguntza judizialen sistema?



Laguntza neurriak borondatezkoak edo judizialak izan daitezke.

Zailtasunak dituzten pertsonak babesteko eta laguntzeko, epaileak, laguntza judizialen sistema ezarri diezazuke. Horrela, bizitzako erabaki garrantzitsuak hartzeko laguntza behar duzula esan dezake.

Epaileak erabakitzen du, zer laguntza behar dituzun zure bizitzan, eta nork lagundu behar zaituen.

Nork kontrolatzen du nire kuradorea?



Epaileak urtero, kuradorea gainbegiratzen du, horrela, zuretzat onak diren erabakiak hartzen dituela ziurtatzen du.

Kuradoreak betebeharrak hauek ditu: Epaileari eman dizkizun laguntzen eta zure egoera pertsonalaren berri eman behar dio.

Epaileak egiaztatu egiten du zure kuradoreak hartutako erabakiek lagundu egin zaituztela.

Kuradoreak informazioa eman behar dio epaileari eta baimena eskatu, gauza garrantzitsuetarako, adibidez, etxe bat saldu nahi baduzu.

Zer egiten du kuradoreak edo laguntzen zaituenak?

3



Epaileak laguntza behar duzula esan duen arlo horietan lagundu egin behar zaitu.

Zure interesak babestu behar ditu, zure nahiak, borondateak, lehentasunak eta beharrak kontuan hartu behar ditu. Autonomoa izaten eta bizi-kalitatea hobetzen lagundu behar dizu.

Ezarri eta erabaki al ditzaket nire laguntzak, epaitegira joan gabe?



Kuradoreak, zuk geroz eta erabaki gehiago modu autonomoagoan hartzen lagundu behar dizu. Horretarako, harreman ona izan behar du zurekin.

Kuradoreak, ezagutu egin behar zaitu, zer gustatzen zaizun jakin behar du.

Kuradoreak ziurtatu egin behar du, jasotzen dituzun laguntza eta zerbitzuak, behar dituzunak eta interesatzen zaizkizunak direla.

Babestu egin behar zaitu, izan dezakezun tratu txar edo utzikieren aurrean. Gertuan Fundazioak, zure familiarekin modu egokian harremantzen lagunduko dizu, zuretzat ona bada.



ETORKIZUNerako PRESTAKUNTZA

Nola laguntzen die familiei?

Aholkularitza eskaintzen die,
eta, gainera, familiek, **Etorkizunerako Konpromisoa**
deitzen den dokumentua sinatu dezakete
Gertuan Fundazioarekin.

Horrela, familia hiltzean,
edo senideak ardura hartu ezin dutenean,
behar dituzun laguntzak
emango dizkizu Gertuan Fundazioak
ados bazaude.



*Laguntza hauen
behin betiko
erabakia,
epaile batek
hartuko du.*



«Etorkizuna ez da
momentu batean
prestatzen, baizik
eta eguneroko
jardunean»



Boluntariotza

Boluntarioek, laguntza eskaintzen diegun pertsonen bizi-kalitatea hobetzen dute.

Oso gertuko harremana dute.

Gizartean parte hartzen, gaitasunak garatzen eta ondo sentitzen laguntzen dute.

Boluntarioak oso garrantzitsu eta beharrezkoak dira Gertuan Fundazioarentzat.

Gurekin boluntariotza edo kolaboratu nahi al duzu?
Jarri harremanetan 943 05 10 95 telefonoan edo
gertuanfundazioa@gertuanfundazioa.eus



Gertuan

Elkartze fundazioa - Fundación tutelar
Elkartze Fundazioa - Fundación tutelar

Gertuan Fundazioa

Morlans pasealekua 14 Behea
20009 Donostia
Gipuzkoa

Gertuan
Fundazioa

www.gertuanfundazioa.eus

Hitzartutako programa.

Gipuzkoako
Fora Aldundia

Zaintza eta
Gizarte Politiketako
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa

Departamento de
Cultura y Políticas
Sociales